

1. hitzarmena: JEZ eta OHZ kudeatu eta biltzeko

Ondoko koadroetan jaso dugu, lehenik, araudiak aurreikusten duen eskumen banaketa, GFA eta udal bakoitzaren artean, JEZ eta OHZ kudeatu eta biltzeko, eta, bigarrenik, bi aldeek sinatu ditzaketen hitzarmen ereduak, udalari dagozkion eskumen batzuk Aldundiaren esku uzteko.

Araudian aurreikusitako eskumen banaketa:

JEZ: 1/1993 FORU DEKRETU ARAUEMAILEAK Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzeari buruzkoak 15. artikuluan jaso duen eskumen banaketa	
Udalari dagokio	GFARI dagokio
Zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, bai borondatezko aldian eta baita ere premiamendu bidean. Zehazki dagozkio:	
- Jarduerak sailkatzea eta kuotak ezartzea, euren ikuskapen jarduketetan oinarrituta.	- Subjektu pasiboak aurkeztutako alta aitopenetik ondorioztatzen den likidazioa
- Errekurtsoak eta erreklamazioak ebaztea	- Zergaren Matrikula osatu eta gordetzea, jarduera ekonomikoak sailkatzea, kuotak ezartzea eta bidezko ordainagiriak egitea.
- Zerga kobratzea, bai borondatezko aldian, bai premiamenduzko bidean	- Kuota probintzialak eta bereziak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzea
- Salbuespen eta hobariak ematea edo ukatzea	- Salbuespenak eta hobariak eman edo ukatu aurreko txosten teknikoa egitea
- Zergadunari laguntzeko eta informatzeko ekintzak aurrera eramatea.	
- Foru Aldundiarekin lana egitea Matrikula osatu eta gordetzeko, jarduera ekonomikoak sailkatzeko eta bidezko kuotak ezartzeko.	

OHZ: 12/1989 FORU ARAUAK, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoak 19. artikuluan jasotako eskumen banaketa

Udalari dagokio	GFari dagokio
Kargapeko ondasunak finkatzen diren udal barrutiko udalari dagozkio kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, bai borondatezko aldiak eta baita ere premiamendu bidean. Zehazki dagokio:	
- Altak, bajak, eta aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoak izapidetzea eta likidatzea.	- Lurzoruaren mugaketa eta Balio ponentziak egin eta onartzea
- Errolda jendaurrean erakustea	- Mugaketa horien eta katastroko balioen finkatzea, berrikustea eta aldatzea
- Errekurtsoak eta erreklamazioak ebatzea	- Katastroen eta Zergaren Erroldaren eraketa, berrikuspen, kontserbazio eta gainerako eginkizunak burutzea
- Zerga kobratzea, bai borondatezko aldiak, bai premiamenduzko bidean	- Kobrantzazko agiriak egitea, bai eta <u>zergaren katastroko ikuskatzailtza ere</u>
- Salbuespen eta hobariak ematea edo ukatzea	- Salbuespenak eta hobariak eman edo ukatu aurreko txosten teknikoa egitea
- Zergapetze tasa finkatzea, zerga arautzen duen FAeko 14. artikuluan xedatutakoaren arabera	
- Erroldari buruz nahiz zergarekin lotutako gaien buruz zergadunak eska dezakeen laguntza eta informazioa ematea.	
- Foru Aldundiarekin lana egitea Katastroa egin eta kontserbatzeko	
- Eta orokorrean, 11/1989 FAeko II Tituluan, III kapituluaren adierazten diren gainerako eskumenak	

JEZ eta OHZ kudeatzeko eta biltzeko hitzarmenak:

JEZ-ren HITZARMENAK – Sei eredu (GAO 2011/12/23) :

1. Eredua	Zergaren kudeaketarako lankidetzeta eta eskuordetzeta. Xedea: <p>1. 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalari ofiziozko altak izapidetu eta likidatzeko nahiz aldaketa eta baja aitortpenak izapidetzeko emandako eskumenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uztea.</p> <p>2. Hitzarmena sinatzen duten erakundeei 1/1993 FDAk esleitzen dizkien gainerako eskumenak zuzen bete eta kudeatzeko lankidetzeta moduak finkatzea, betiere Gipuzkoako udalerriei indarrean dagoen araudiak onartzen dien udal autonomia kontuan izanik.</p>
2. Eredua	Zergaren kudeaketarako lankidetzeta eta eskuordetzeta, eta epe exekutiboan biltzeko eskumenaren eskuordetzeta. Xedea: <p>1. 1/1993 FDAk, bere 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalari ofiziozko altak izapidetu eta likidatzeko, eta aldatze eta baja aitortpenak izapidetzeko emandako eskumenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uztea.</p> <p>2. 1/1993 FDAk 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalari bide exekutiboan zerga biltzeko emandako eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uztea.</p> <p>3. Hitzarmena sinatzen duten instituzioei 1/1993 FDAk esleitzen dizkien gainerako eskumenak zuzen bete eta kudeatzeko lankidetzeta moduak finkatzea, beti ere, Gipuzkoako udalerriei indarrean dagoen araudiak onartzen dien udal autonomia kontuan izanik.</p>
3. Eredua	Zergaren borondatezko epeko kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketarako eskuordetzeta, epe exekutiboan biltzeko eskumena gordeta. Xedea: <p>Hitzarmen honen bitartez GFaren esku uzten dira JEZ arautzen duen 1/1993 FDAk udalari zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta borondatezko epean zergabiltzeko emandako eskumenak. Udalak premiamenduzko epearen bilketa mantentzen du.</p>
4. Eredua	Zergaren borondatezko epeko nahiz epe exekutiboko kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketarako eskuordetzeta. Xedea: <p>Hitzarmen honen bitartez GFaren esku uzten dira JEZ arautzen duen 1/1993 FDAk udalari zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta zergabiltzeko emandako eskumenak.</p>
5. Eredua	Zergaren borondatezko epeko kudeaketa, likidazio eta bilketarako eskuordetzeta, ikuskatzeko eta epe exekutiboan biltzeko eskumena gordeta. Xedea: <p>Hitzarmen honen bitartez GFaren esku uzten dira JEZ arautzen duen 1/1993 FDAk udalari zerga kudeatu, likidatu eta borondatezko epean biltzeko emandako eskumenak. Udalak ikuskapena eta premiamenduzko epearen bilketa mantentzen du.</p>
6. Eredua	Zergaren borondatezko epeko nahiz epe exekutiboko kudeaketa, likidazio eta bilketarako eskuordetzeta, ikuskapen eskumena gordeta. Xedea: <p>Hitzarmen honen bitartez GFaren esku uzten dira JEZ arautzen duen 1/1993 FDAk udalari zerga kudeatu, likidatu eta zergabiltzeko emandako eskumenak. Udalak zergaren ikuskaritza mantentzen du.</p>

OHZ-ren HITZARMENAK: 4 eredu (GAO 1995/02/28):

I Eranskina	OHZ Lankidetzaren eskuordetza zergaren kudeaketan. Xedea: 1. 12/1989 FAko 19.1 eta 2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalari zergaren altak eta aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoak izapidetzeko emandako eskumenak GFaren esku uztea. 2. Hitzarmena sinatzen duten erakundeei 12/1989 FAK esleitzen dizkien gainerako eskumenak zuzen bete eta kudeatzeko lankidetzaren moduak finkatzea, betiere Gipuzkoako udalerriei indarrean dagoen araudiak onartzen dien udal autonomia kontuan izanik.
II Eranskina	OHZ Lankidetzaren eskuordetza borondatezko bidean eta eskuordetza bide exekutiboan. Xedea: 1. 12/1989 FAeko 19.1 eta 2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalari zergaren altak eta aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoak izapidetzeko emandako eskumenak GFaren esku uztea. 2. 12/1989 FAeko 19.1 eta 2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalari bide exekutiboan zerga kudeatzeko emandako eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uztea. 3. Hitzarmena sinatzen duten erakundeei 12/1989 FAK esleitzen dizkien gainerako eskumenak zuzen bete eta kudeatzeko lankidetzaren moduak finkatzea, betiere Gipuzkoako udalerriei indarrean dagoen araudiak onartzen dien udal autonomia kontuan izanik.
III Eranskina	OHZ Eskuordetza borondatezko bidean. Xedea: Hitzarmen honen bitartez GFaren esku uzten dira OHZ arautzen duen 12/1989 FAK udalari zerga <u>borondatezko epealdian</u> kudeatu, likidatu, ikuskatu eta zergabiltzeko emandako eskumenak.
IV Eranskina	OHZ Eskuordetza zergaren kudeaketan. Xedea: Hitzarmen honen bitartez GFaren esku uzten dira OHZ arautzen duen 12/1989 FAK udalari zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta zergabiltzeko emandako eskumenak (<u>borondatezko epealdian eta bide exekutiboan</u>).

2. hitzarmena: Zuzenbide publikoko sarreren bilketa bide exekutiboan (GAO 2004/09/28)

Udalek Foru Aldundiaren esku utzi dezakete zuzenbide publikoko sarreren bilketa bide exekutiboan (zergak, prezio publikoak, tasak, urbanizazio kuotak...).

Aldundiak, honako zeregin hauek ditu: Premiamenduzko probidentzia jakinaraztea, bidezkoa denean, kontu bankarioak bahitzea, hiruharrenen kredituak bahitzea, GFAREN kredituak kompensatzea, eta soldatak bahitzea (zigor ez-tributarioen kasuan izan ezik). Zergabilketa prozedura ekintza hauetara murrizten da.

Aldundiari berak biltzeko utzi daitekeen zor bakoitza gutxienez 10 eurokoa izan behar du, eta Aldundiak bere lana egiteko gehienez 18 hilabeteko epea du.

Kudeaketa kostu kontzeptuan bilketa garbiaren (bilketa osoa – itzulketak) %10 aplikatzen dio Aldundiak udalari.

Hitzarmen honetan xedatutakoa JEZ edo OHZ kudeatzeko udalak GFAREkin izenpetzen dituen hitzarmenen kaltetan gabe ulertuko da.